



**Ikasmina DoKS:**

Gipuzkoako bizitza guzian zeharreko  
ikasketari buruzko dokumentuak

# Emakumeen talentua: Gipuzkoako emakume helduen prestakuntza

90. dokumentua

2023ko martxoa

**Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.**  
Gipuzkoa, un territorio que aprende.

**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Ekonomia Sustapeneko,  
Turismoko eta Landa  
Ingurunekeo Departamentua



Diputación Foral  
de Gipuzkoa  
Departamento de Promoción  
Económica, Turismo  
y Medio Rural

## AURKIBIDEA

<b>1. Aurkezpena .....</b>	<b>3</b>
1.1. Aurkezpena .....	3
<b>2. Gipuzkoako emakumeen prestakuntza .....</b>	<b>4</b>
2.1. Emakumeak eta eskuratutako prestakuntza .....	4
2.2. Emakumeak, eskuratutako prestakuntza maila eta adina .....	6
2.3. Emakumeak eta gizonak, eta eskuratutako prestakuntza .....	9
<b>3. Emakume gazteak, prestakuntza eta lan-egoera .....</b>	<b>11</b>
3.1. Enplegurako prestakuntzaren garrantzia .....	11
3.2. Hezkuntzaren uzte goiztiarra .....	12
3.3. Lanbide-heziketako ikasketak amaitutako emakumeak .....	14
3.4. Unibertsitateko ikasketak amaitutako emakumeak .....	17
<b>4. Emakumea eta bititza osoko ikaskuntza .....</b>	<b>19</b>
4.1. Bititza osoko ikaskuntzaren definizioak .....	19
4.2. Emakumeen parte-hartzea ikaskuntzan .....	20
4.3. Ez ikasteko arrazoiak .....	23
4.4. Emakumeen eta gizonen posizioa, alderatuta .....	25

# 1. Aurkezpena

## 1.1. Aurkezpena

Lan-dokumentu honen helburua da Gipuzkoako emakumeen talentuaren balantzea aurkeztea. Gaur egun eskuragarri dagoen eta hainbat erakundek emakumeen prestakuntzari eta ikaskuntzari buruz landu duten informazioaren panoramika da.

Aurkeztutako emaitzak hauei buruzkoak dira:

- Pertsonak eta eskuratutako ikasketa maila (generoaren eta adinaren arabera) Gipuzkoan, Eustatek egina.
- Lanbide-heziketako eta unibertsitateko sistemetan ikasketak amaitutako pertsonak, Lanbidek egina, eta EAERI erreferentzia eginda.
- Hezkuntza-uzte goiztiarra (generoaren arabera), Hezkuntza eta Lanbide Heziketaren Ministerioak egina, eta EAERI erreferentzia eginda; lortutako emaitzak erreferentziazko herrialdeen taula batekin alderatu dira.
- Eta amaitzeko, Gipuzkoako helduen bizitza osoko ikaskuntzari buruzko inkesta, Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuak (GFA) egina.

Txostena egiteko unean eguneratutako informazioa izan da kasu guztietan, eta emakumeen kolektiboari eta gizonekin alderatuta duten posizioari buruzko datuak aurkeztea izan da ardatza. Hala, hurbilketa bat egin da lurraldeko emakumeen talentura, haien hobekuntza-ibilbidera eta, zalantzarik gabe, aurrera begira dauden erronketara, esaterako, STEM eremuetan emakumeen presentzia handiagoa izatea.

## 2. Gipuzkoako emakumeen prestakuntza

### 2.1. Emakumeak eta eskuratutako prestakuntza

#### Gipuzkoako emakume helduen prestakuntza<sup>1</sup> etengabe hobetzen ari da

2010 eta 2021 artean, handitu egin da hirugarren mailako ikasketak dituzten Gipuzkoako emakume helduen (25-74 urte) proportzioa (ehuneko +12,6 puntu) eta lurralde osoko emakumezkoen erdia baino zertxobait gehiago dira (% 55,3). Zehatzago esanda, heren batek goi mailako edo erdi-goi mailako unibertsitateko prestakuntza du (% 35,1) eta hamarretik bik LHko ikasketak (% 20,2) egin ditu. Bi kasu horietan datua 2010ekoa baino hobea da (ehuneko +7,5 eta +5,1 puntu, hurrenez hurren) eta horrek agerian uzten du emakumezko gipuzkoarren prestakuntzan progresioa gertatu dela.

#### 1. taula Gipuzkoako emakumeen ikasketa maila. 2010 eta 2021

25-74 urteko emakumeak

	2010		2021		Aldea
	GUZTIRA	%	GUZTIRA	%	
<b>Ikasketa maila</b>					
Lehen maila baino gutxiago	5.874	2,5	3.330	1,4	-2.544
Lehen mailako ikasketak	86.465	36,7	59.743	25,5	-26.722
Bigarren mailako ikasketak	42.744	18,1	41.746	17,8	-998
Lanbide-heziketa	35.617	15,1	47.221	20,2	11.604
Erdi-goi/goi mailako ikask.	65.190	27,6	82.172	35,1	16.982
<b>GUZTIRA</b>	<b>235.890</b>	<b>100,0</b>	<b>234.212</b>	<b>100,0</b>	<b>-1.678</b>


Iturria: Hezkuntzaren udal-estatistika, Eustat

<sup>1</sup> Burututako edo abian den ikasketa maila altuenaren arabera neurtutako ikasketa maila. Kasu horretan, ez da kontuan hartzen ikasketa horiek amaituta dauden, behin-behinekoak diren edo behin betikoz burutu gabe geratu diren (Eustat). Aldagai hau aukeratu da egindako ikasketei buruzko informazioa (ikasleak ez diren herritarrak) ez dagoelako eguneratuta 2021eko datuen arabera.

Aldiz, gutxitu egin da ikasketa orokorrak dituzten emakumeen proportzioa eta nabarmendu beharrekoak dira lehen mailako ikasketak dituztenen taldean gertatu den jaitsiera (ehuneko -11,2 puntu) eta lehen mailako ikasketak baino baxuagoak dituen kolektiboaren proportzio oso txikia (guztizkoarekiko % 1,4). Bestalde, aipatu beharrekoa da bigarren mailako ikasketak egin dituen biztanleriarena (% 17,8). Oro har, ikasketa orokorrak dituzten emakumezkoek guztizkoarekiko % 44,7 osatzen dute. Ehuneko hori oraindik handia den arren, adin handieneko kolektiboaren pixkanakako irteera dela eta (oro har, batez besteko prestakuntza txikiagoa duena), gutxitzen joango da emakume gazteak gehitu ahala (hain zuzen ere, hirugarren mailako prestakuntzan partaidetza handiagoa eta ibilbide akademiko altuagoa dute gazteek).

### 1. grafikoa Gipuzkoako emakumeak, eskuratutako prestakuntzaren arabera. 2010 eta 2021

25-74 urteko emakumeen %



Iturria: Hezkuntzaren udal-estatistika, Eustat

Bestalde, 25 eta 74 urte arteko emakumezkoen bilakaerak 2010 eta 2021 artean izandako jaitsiera eta Gipuzkoako biztanleriaren zahartze-prozesua islatzen ditu. Zehatzago esanda, emakumezkoen kopurua 234.212koa da; hau da, 2010eko datuekin alderatuta, 1.678 emakume gutxiago dira. Aipatu beharrekoa da jaitsiera hori bigarren mailako ikasketak edo baxuagoak egin dituztenen taldeari (-30.264 emakume) dagokiola. Aldiz, hirugarren mailako ikasketak dituzten emakumeen taldeak igoera (+28.586 emakume) izan du, baina ez da nahikoa izan lurraldeko 25 eta 74 urte arteko emakumezkoen multzoak izandako jaitsiera arina konpentsatzeko.

## 2.2. Emakumeak, eskuratutako prestakuntza maila eta adina

### Emakume gazteei esker hobetu da oro har emakumezkoen prestakuntzaren datua

Adina faktore erabakigarria da Gipuzkoako emakumeen prestakuntzan eta, hain zuzen ere, belaunaldi gazteenek lortu dute hezkuntza maila handiagoa (aldiz, adin handieneko taldeen batez besteko prestakuntza txikiagoa izan da)<sup>2</sup>. Hala:

- 25-34 urtekoen taldearen biztanle kopurua 65-74 urtekoen kolektibokoa baino txikiagoa den arren, biztanle kopurua hiru aldiz handiagoa da goi eta erdi-goi mailako ikasketa mailan (18.022 vs. 5.150), eta bi aldiz handiagoa lanbide-heziketari (7.383 vs. 4.163) dagokionez. Horrek agerian uzten du emakume gazteen prestakuntza hobea dela.
- 35-44 urtekoen taldean emaitza bera ikus daiteke; izan ere, adin-talde horretako emakumeen bi herenek goi mailako eta erdi-goi mailako prestakuntza, eta LHkoa (% 68,4) dute. Emaitza berbera ikus daiteke 45-54 urtekoen taldean (% 64,0).
- Adin handieneko bi taldeetan, txikiagoa da hirugarren mailako ikasketak dituzten biztanleen kopurua eta haien proportzioa % 28,0ra gutxitzen da 65-74 urtekoen taldean. Hala, emakume seniorren erdiak ditu lehen mailako ikasketak (23.756).

Gauzak horrela, aipatzekoa da belaunaldi gazteenetako pertsona kopurua adin handienetakoena baino txikiagoa dela. Horrek agerian uzten du Gipuzkoako biztanleriaren zahartze-prozesua.

### 2. taula Gipuzkoako emakumeen ikasketa maila, adinaren arabera. 2021

25-74 urteko emakumeak

	25-34	35-44	45-54	55-64	65-74	GUZTIRA
<b>Ikasketa maila</b>						
Lehen mailatik behera	694	528	369	463	1.276	<b>3.330</b>
Lehen mailako ikask.	1.530	5.282	11.709	17.466	23.756	<b>59.743</b>
Bigarren mailako ikask.	6.426	9.576	8.119	8.678	8.947	<b>41.746</b>
Lanbide-heziketa	7.383	10.016	14.193	11.466	4.163	<b>47.221</b>
Erdi-goi/goi mail. ikask.	18.022	23.276	21.718	14.006	5.150	<b>82.172</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>34.055</b>	<b>48.678</b>	<b>56.108</b>	<b>52.079</b>	<b>43.292</b>	<b>234.212</b>

Iturria: Hezkuntzaren udal-estatistika, Eustat

<sup>2</sup> Hezkuntza Lege Orokorrak (1970) ezarri zuen ordura arte etapaka landutako curriculum-ibilbidea (Lehen Hezkuntzako Legea, (1945), Bigarren Hezkuntza Antolatze Legea, (1953)...). Hau da, 60ko hamarkadan jaiotako belaunaldiak dira 6-14 urte artean eskolatzeko eskakizuna eraginkortasunez aplikatu zaien lehen belaunaldiak.

### Goi mailako ikasketak dituzten emakumeen laurik hiruk 55 urte baino gutxiago ditu

Atxikitako taulak adin-talde bakoitzak kontuan hartutako hezkuntza mailetan duen pisua jasotzen du. Taulan ikus daitekeenaren arabera, honako hauek dira emakumezko heldu guztien banaketari dagokionez atera daitezkeen ondorioak:

- 25-34 urtekoen taldea biztanleriaren % 14,5 da, eta proportzio hori gainditzen du prestakuntza handieneko eta txikieneko multzoetan; hau da, goi mailako eta erdi-goi mailako ikasketetan (% 21,9) eta lehen mailakoak baino baxuagoak diren ikasketetan (% 20,8)<sup>3</sup>.
- 35-44 urteko emakumeak biztanleriaren % 20,8 dira eta haien proportzioa % 28,3raino igotzen da goi mailako eta erdi-goi mailako ikasketen kasuan.
- 45-54 urtekoen taldeak (biztanleriaren % 24) bere parte-hartzea % 30,1 eta % 26,4ra igotzen du LH eta goi mailako eta erdi-goi mailako ikasketetan.
- 55-64 urte artekoen taldekoa da lehen mailako ikasketak dituzten hiru lagunetik bat (% 29,2) eta proportzio hori are handiagoa da 65-74 urte artekoen kolektiboan (% 39,8). Oro har, lehen mailako ikasketak dituzten hamar lagunetik zazpik dituzte 55 urte eta gehiago.

Hala, adin-talde gazteenak nagusi dira prestakuntza handieneko mailetan eta, aldiz, adin handieneko emakumeak gehiengo dira prestakuntza gutxien dutenen kolektiboan. Dena den, alde hori gutxitzen joango da azken urteotan prestakuntzarako sarbidea homogeneoagoa izan delako.

### 3. taula Adin-talde bakoitzak eskuratutako hezkuntza maila egiten dien ekarpena. 2021

25-74 urteko emakumeen banaketa (%)

	25-34	35-44	45-54	55-64	65-74	GUZTIRA
<b>Ikasketa maila</b>						
Lehen mailatik behera	20,8	15,9	11,1	13,9	<b>38,3</b>	100
Lehen mailako ikask.	2,6	8,8	19,6	<b>29,2</b>	<b>39,8</b>	100
Bigarren mailako ikask.	15,4	22,9	19,4	20,8	21,4	100
Lanbide-heziketa	15,6	21,2	<b>30,1</b>	24,3	8,8	100
Erdi-goi/goi mail. ikask.	<b>21,9</b>	<b>28,3</b>	26,4	17,0	6,3	100
<b>GUZTIRA</b>	<b>14,5</b>	<b>20,8</b>	<b>24,0</b>	<b>22,2</b>	<b>18,5</b>	<b>100</b>

Letra lodiz, kontuan hartutako hezkuntza mailetan adin-talde bakoitzak egiten duen ekarpenik handiena erakusten duten balioak.

Iturria: Hezkuntzaren udal-estatistika, Eustat

<sup>3</sup> Emaizta hori immigrazio-faktorearen ondorio izan daiteke, prestakuntza gutxiago duten pertsonen eta gazteek edo titulazioak homologatu ezin izan dituztenek egindako ekarpenagatik.

### Hirugarren mailako prestakuntza da nagusi emakume gazteen artean, baina ez seniorren artean

Gipuzkoako emakume helduak adin-talde bakoitzean lortutako prestakuntzaren arabera banatzen baditugu, emakumeen adinak gora egin ahala, hirugarren mailako hezkuntzan duten proportzioa jaitsi egiten dela ikusiko dugu. Zehazki,

- 25-34 urteko lau emakumetik hiruk (% 74,6) du hirugarren mailako hezkuntza eta handiagoa da goi eta erdi-goi mailako ikasketen proportzioa (% 52,9) lanbide-heziketakoarena (% 21,7) baino.
- 35-44 urtekoen taldean hirugarren mailako hezkuntzaren pisua txikiagoa da (% 68,4) eta nabarmendu beharrekoa da goi eta erdi-goi mailako ikasketen proportzioa (% 47,8) lanbide-heziketakoarekin (% 20,6) alderatuta.
- Hirugarren mailako ikasketetako ratioa antzekoa da 45-54 urtekoen taldean (% 64,0), baina, kasu honetan, lanbide-heziketak eragin handiagoa du (% 25,3) erdi-goi eta goi mailako ikasketetakoak baino (% 38,7).
- 55-64 urteko emakumeen erdiak hirugarren mailako ikasketak ditu (% 48,9) baina herenak baino gehiagok lehen mailako hezkuntza du (% 33,5).
- 65-74 urtekoen taldean, hirugarren mailako ikasketen pisua nabarmen txikiagoa da (% 21,5) eta, ondorioz, senior gehienek lehen mailako ikasketak (% 54,9) edo bigarren mailakoak (% 20,7) dituztela esan dezakegu.

Emaitza horiek agerian uzten dituzte une bakoitzean prestakuntzara sarbidea izatearekin lotuta Gipuzkoako emakume helduen prestakuntzan dauden belaunaldi arteko aldeak.

#### 4. taula Gipuzkoako emakumeen ikasketa maila adinaren arabera. 2021

25-74 urteko emakumeen banaketa (%)

	25-34	35-44	45-54	55-64	65-74	GUZTIRA
<b>Ikasketa maila</b>						
Lehen mailatik behera	2,0	1,1	0,7	0,9	2,9	1,4
Lehen mailako ikask.	4,5	10,9	20,9	33,5	54,9	25,5
Bigarren mailako ikask.	18,9	19,7	14,5	16,7	20,7	17,8
Lanbide-heziketa	21,7	20,6	25,3	22,0	9,6	20,2
Erdi-goi/goi mail. ikask.	52,9	47,8	38,7	26,9	11,9	35,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Hezkuntzaren udal-estatistika, Eustat



## 2.3. Emakumeak eta gizonak, eta eskuratutako prestakuntza

### Emakumezkoen presentzia handiagoa hezkuntza maila altuetan


Pertsonen lortutako prestakuntza-mailan aldeak daude generoaren arabera, eta emakumeen presentzia handiagoa da goi-mailako hezkuntza-mailatan. Erantsitako grafikoek, prestakuntza-maila bakoitzerako, datuak aurkezten dituzte, adin-taldean eta generoaren arabera berezita. Ikus daitekeenez:

- Hezkuntza orokorra: gizonezkoen kolektiboaren proportzioa handiagoa da 45-54 urtekoen taldera arte (% 53,4, % 56,6 eta % 54,3), baina adin handieneko bi taldeetan, emakumezkoen presentzia nabarmendu behar da (% 51,5 eta % 58,1).
- Lanbide-heziketa: nagusi dira gizonezkoak adin-talde guztietan eta bereziki azpimarratu beharrekoa da 25-34 urtekoen (% 62,8) eta 65-74 urtekoen (% 65,6) taldeetan duten presentzia.
- Goi eta erdi-goi mailako ikasketak: emakumeak dira nagusi goi mailako ikasketak dituzten gipuzkoarren artean, eta batez ere nagusi dira talde hauetan: 25-34 urtekoak eta 35-44 urtekoak (% 59,6 eta % 61,1).

Hala, emakumezkoen batez besteko prestakuntza hobea dela baieztatu daiteke eta horrekin lotuta, goi mailako ikasketen mailan duen proportzioa nabarmendu behar da. Aldiz, gizonezkoak nagusi dira ikasketen orokorretan eta lanbide-heziketan.

### 2. grafikoa Ikasketen orokorrak dituzten herritarrak, sexuaren eta adinaren arabera. 2021


ikasketen orokorrak dituzten 25-74 urtekoen %



Iturria: Hezkuntzaren udal-estatistika, Eustat

**3. grafikoa LHko ikasketak dituzten herritarrak, sexuaren eta adinaren arabera. 2021**


Lanbide-heziketako ikasketak dituzten 25-74 urtekoen %



Iturria: Hezkuntzaren udal-estatistika, Eustat

**4. grafikoa Goi eta erdi-go mailako ikasketak dituzten herritarrak, sexuaren eta adinaren arabera. 2021**

Goi mailako eta erdi-go mailako ikasketak dituzten 25-74 urtekoen %



Iturria: Hezkuntzaren udal-estatistika, Eustat

# 3. Emakume gazteak, prestakuntza eta lan-egoera

## 3.1. Enplegurako prestakuntzaren garrantzia

Pertsonen prestakuntzari buruzko eta haien lan-ibilbidearekin lotzen dituen prestakuntzari buruzko hiru informazio-bloke jasotzen ditu kapitulu honek.

- Hezkuntzaren uzte goiztiarraren azterketa<sup>4</sup> da abiapuntua, pertsonen prestakuntza-ibilbidean izandako jarraitutasunaren adierazle gisa: hala, eskolako uzte-tasa zenbat eta txikiagoa izan, esan nahi du orduan eta handiagoa dela prestatzen jarraitzen duten pertsonen proportzioa.
- Bestetik, orain dela gutxi Lanbide Heziketako ikasketak amaitu dituzten pertsonen lan-egoeraren emaitzak aurkezten dira. EAEko Lanbide Heziketako zentroen sarean 2020an ikasketak amaitutako enpleguari buruzkoak dira eskuragarri dauden azken datuak, eta promozio horrek 2021eko abenduan zuten lan-egoera jasotzen du.
- Euskal unibertsitateetan (Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) ikasketak amaitu dituzten pertsonen buruz jasotako informazioarekin osatzen dira emaitza horiek. Zehazki, 2018ko promozioan ikasketak amaitu zituzten ikasleek 2021eko abenduan zer lan-egoera zuten jasotzen da.

Emakumeen egoera aurkeztea da helburua, haien prestakuntzari eta enpleguari dagokienez: hala, emakumeek eskuratutako hezkuntza maila asko hobetu den arren, alde handiak ikusten dira aukeratutako ezagutza arloari dagokionez (emakumeen eta gizonen artean), eta horrek haien lan-ibilbideari eragiten dio –beste faktore batzuek gain–.

<sup>4</sup> Informazioa EAeri dagokio, baina Gipuzkoako egoeraren erakusle ere izango litzateke.


### 3.2. Hezkuntzaren uzte goiztiarra

#### Ikasketak utzi dituzten emakumeen tasa handiagoa da gizonezkoena baino

Eskolako uzte-tasak Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa (DBHko 4. maila, batxilergoa, oinarrizko eta/edo erdi mailako Lanbide Heziketa) burutu ez, eta araututako hezkuntza-prestakuntzarik jasotzen ez duten pertsonen (18-24 urte) ehunekoa erakusten du. Adierazle horrek EAEn izandako bilakaerak<sup>5</sup> hau erakusten du:

- Eskolako uzte-tasa % 5,6koa da eta urtetik urterako tasan igoera txikia gertatu da. Dena den, urte horretan (2021) gertatu zen segida osoko tasa txikiena (% 4,8). Hala, 2022ko datua 2020koa baino (% 6,5) txikiagoa da.
- Emakumezkoen uzte-tasa gizonezkoena baino txikiagoa da (% 4,2 vs. % 7,0) eta horrek aurreko urteetako joera baieztatu du, 2021ean izandako ezohiko emaitza albo batera utzita. Hala, bi kolektiboen uzte-tasa 2020koa baino baxuagoa da eta horrek agerian utzi du gazteek hirugarren mailako prestakuntzan partaidetza handiagoa izan dutela.

#### 5. grafikoa Hezkuntzaren uzte goiztiarra, sexuaren arabera. EAE



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkestako hezkuntza-aldagaien ustiatzea (EIN) Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

EAEko uzte-tasa Estatukoa eta EB-27koa baino txikiagoa da eta emaitza hori antzekoa da gizon eta emakumeen artean. Hala, aztertutako hiru esparruetan, emakumezkoen

<sup>5</sup> Gipuzkoako informazioa ez dago eskuragarri, baina Lurraldeko egoera erakutsiko luke.

uzte-tasa gizonetzkoena baino txikiagoa da, baina arrakala txikiena EAEk du (2,2 puntu) Estatukoaren (6,9 puntu) eta EB-27koaren (3,6 puntu) aldean. Bilakaerari erreparatzen bazaio, adierazle horrek etengabeko hobekuntza izan duela ondorioztatu daiteke. Eskolako uzte-tasa nabarmen izan da beherakorra aztertutako hiru alderdietan, baina hobekuntza handiagoa izan da gizonetzkoen kolektiboan emakumezkoenean baino.

Inguruko herrialdeekin alderatuta, EAEko eskolako uzte-tasa, Herbehereetakoarekin batera, baxuenetako bat dela ikusten da.

**5. taula Hezkuntzaren uzte goiztiarra, sexuaren arabera. EAE-Estatua-EB27**

18-24 urteko herritarren %


		2010-2014	2015-2019	2020-2022
<b>EAE</b>	<b>Guztira</b>	<b>11,7</b>	<b>7,7</b>	<b>5,7</b>
	Emakumea	10,4	5,3	4,5
	Gizona	13,0	9,9	6,7
<b>Estatua</b>	<b>Guztira</b>	<b>24,9</b>	<b>18,5</b>	<b>14,4</b>
	Emakumea	20,5	14,5	10,9
	Gizona	29,2	22,4	17,8
<b>EB-27*</b>	<b>Guztira</b>	<b>12,5</b>	<b>10,6</b>	<b>9,8</b>
	Emakumea	10,5	8,9	8,0
	Gizona	14,4	12,1	11,6

\*EB-27ko 2020-2022 batezbestekoak 2020-2021 aldia biltzen du txosten hau prestatzeko garaian informazio hori zegoelako eskuragarri.

Iturria: BAI hezkuntza-aldagaien ustiatzea (EIN) Hezkuntza eta LHko Ministerioa

**6. grafikoa Emakumezkoen eskolako uzte-tasa eta erreferentziako herrialdeak\***

18-24 urteko emakumeen %



\*Txosten hau egin dugun unean 2021ekoa da eskuragarri dagoen azken datua.

Iturria: BAI hezkuntza-aldagaien ustiatzea (EIN) Hezkuntza eta LHko Ministerioa



### 3.3. Lanbide-heziketako ikasketak amaitutako emakumeak

#### Pertsona gehiagok amaitu dute LH, baina emakumezkoen presentzia txikiagoarekin

Lanbide-heziketa Euskadiko gazteentzat gero eta erakargarriagoa den alternatiba gisa sendotu da, enplegura bideratuta dagoelako eta izaera praktikoa duelako. Euskadiko LHn ikasketak amaitu dituzten ikasleekin lotutako informazioak<sup>6</sup> emaitza hori baieztatu du; izan ere, LHn ikasketak amaitu dituzten pertsonen kopuruak pixkanaka gora egin du eta 2019-2020 aldian 12.186 izan ziren batez beste. Beste era batera azalduta, 2015-2018ko aldiarekin alderatuta, 1.199 ikasle gehiago izan dira (batez beste).

Aitzitik, emakumeek Euskadiko LHn duten presentzia zertxobait gutxiago da eta ikasketak amaitu dituzten hamar pertsonatik lau baino gutxiago (% 38,6) izan dira. Emaitza hori honi lotuta dago: LHn ikasketak amaitu dituzten emakumeen kopurua gizonenak baino gutxiago igo da 2015-2018 aldiarekiko (+287 emakume vs. +912 gizon).

#### 6. taula LH eta generoa EAEn, ikasketak amaitutako ikasurtearen arabera

Emakumeen %

	2011-2014	2015-2018	2019-2020
<b>Lanbide Heziketa amaitu duten ikasleak</b>			
Ikasketak amaitu dituzten ikasleak, guztira	10.142	10.987	12.186
Ikasketak amaitu dituzten emakumeak	4.407	4.415	4.703
Emakumeen %	43,5	40,2	38,6

Iturria: EAEn Lanbide Heziketatik bizimodu aktiboan sartzeari buruzko inkesta. Lanbide

#### Prestakuntza-zikloen aukeraketan genero-erolek bere horretan irauten dute

Emakumeen presentzia asko aldatzen da familia profesionalaren arabera, hau kontuan izanda:

- 8 familiatan, ikasketak amaitu dituzten ikasleen erdiak baino gehiago dira emakumeak. Zehazki, Kimika (% 60,2), Administrazioa (% 64,4), Elikagaien industria (% 65,6) Turismoa (% 68,4), Osasuna (% 78,1), Komunitateari zuzendutako gizarte eta kultura arloko zerbitzuak (% 79,8), Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza (% 88,0) eta Irudi pertsonala (% 92,3).

<sup>6</sup> Ez dago eskuragarri Gipuzkoarako, baina lurraldeak bizi duen egoera islatuko luke.

- Bestetik, 7 familia profesionaletan emakumeen presentzia % 10etik beherakoa da. Hauek dira: Informatika (% 9,6), Fabrikazio mekanikoa (% 8,6), Energia eta ura (% 6,1), Elektrizitatea eta elektronika (% 6,0), Instalazioak eta mantentze-lanak (% 5,3), Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak (% 3,7) eta Arrantza (% 3,5).

**7. taula Emakumeak Lanbide Heziketako familia profesionaletan, ikasketak amaitutako ikasurtearen arabera. EAE**

Emakumeen %

	2011-2014	2015-2018	2019-2020
<b>Familia profesionalak; emakumeen %</b>			
<i>Irudi pertsonala</i>	<b>97,4</b>	<b>97,0</b>	<b>92,3</b>
<i>Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza</i>	<b>90,8</b>	<b>85,2</b>	<b>88,0</b>
<i>Gizarte eta kultura arloko zerbitzuak</i>	<b>85,4</b>	<b>81,3</b>	<b>79,8</b>
<i>Osasuna</i>	<b>83,1</b>	<b>78,9</b>	<b>78,1</b>
<i>Turismoa</i>	<b>73,2</b>	<b>72,5</b>	<b>68,4</b>
<i>Elikagaien industria</i>	<b>48,1</b>	<b>60,0</b>	<b>65,6</b>
<i>Administrazioa</i>	<b>74,3</b>	<b>65,3</b>	<b>64,4</b>
<i>Kimika</i>	<b>58,9</b>	<b>52,7</b>	<b>60,2</b>
Merkataritza eta marketina	54,7	54,7	48,2
Arte grafikoak	52,9	48,5	45,0
Segurtasuna eta ingurumena	40,0	36,4	40,4
Eraikuntza eta obra zibila	29,5	35,4	35,9
Ostalaritza	32,3	33,4	36,3
Komunikazioa, irudia eta soinua	35,3	30,4	25,7
Jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak	20,2	20,4	24,3
Nekazaritzako jarduerak	18,7	18,3	19,6
Egurra eta altzariak	6,6	7,0	19,0
Informatika	13,6	10,8	9,6
Fabrikazio mekanikoa	6,7	7,0	8,6
Energia eta ura	8,3	11,1	6,1
Elektrizitatea eta elektronika	4,8	4,7	6,0
Instalazioa eta mantentze-lanak	4,8	3,7	5,3
Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak	2,7	2,4	3,7
Itsasoko jarduerak eta arrantza-jarduerak	6,5	3,3	3,5

Iturria: EAEn Lanbide Heziketatik bizimodu aktiboan sartzeari buruzko inkesta. Lanbide

### Okupazio-tasa txikiagoa eta langabezia handiagoa LHko emakumeen artean

Lanbide Heziketako ikasketak amaitu eta handik urtebetera pertsona horiek zuten lan-egoera erakusten dute enplegararitasunari buruzko adierazleek (eskuragarri dagoen azken datua 2021eko abenduko lan-egoerari buruzkoa da). Generoaren araberrako alderaketak hau erakusten du:

- Jarduera-tasa apur bat altuagoa da emakumeen artean (% 62,6, eta gizonen % 59,1), eta nahiko egonkor mantentzen da aurreko urteetako datuekiko.
- Aldiz, gizonen okupazio-tasa emakumeena baino zertxobait altuagoa da (% 79,2 vs. % 78,3), baina arrakala gutxitu egin da aurreko urteetakoari dagokionez.
- Bestalde, langabezia-tasa zertxobait handiagoa da emakumezkoen artean (% 21,7) gizonezkoen artean (% 20,8) baino, bi kasuetan, tasa oso adierazgarria da (nahiz eta 2011-2014 aldikoa baino baxuagoa den).

### 8. taula Lan-munduratzeari Euskadiko Lanbide Heziketatik, generoaren arabera

	Urte hauetan ikasketak amaitu dituzten pertsonak:		
	2011-2014	2015-2018	2019-2020
<b>Ikasketak amaitu dituzten emakumeak</b>			
Jarduera-tasa	65,9	66,5	62,6
Okupazio-tasa	65,3	77,5	78,3
Langabezia-tasa	34,7	22,5	21,7
<b>Ikasketak amaitu dituzten gizonak</b>			
Jarduera-tasa	61,3	66,1	59,1
Okupazio-tasa	63,3	80,4	79,2
Langabezia-tasa	36,7	19,6	20,8

Iturria: EAEn Lanbide Heziketatik bizimodu aktiboan sartzeari buruzko inkesta. Lanbide

Familia profesionalen arabera, aipatu beharrekoa da okupazio-tasa handieneko esparruetan txikia dela emakumezkoen presentzia (osasun arloa da salbuespena). Aldiz, emakumezkoen kolektiboaren proportzioa oso handia da okupazio-tasa txikieneko familia profesionaletan.

### 9. taula Okupazio-tasa altuenak eta baxuenak dituzten Lanbide Heziketako familia profesionalak, eta emakumeek horietan duten presentzia. 2020

Familia profesionalak			
Okupazio-tasa altuenak	Emak. %	Okupazio-tasa baxuenak	Emak. %
Produktzio-zerb. mantenua (% 87,8 )	5,0	Irudi pertsonala (% 74,2)	91,7
Jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak (% 85,4)	24,0	Arte grafikoak (% 73,1)	45,7
Segurtasuna-Ingurumena (% 83)	35,0	Komunik., irudia-soinua (% 70,6)	24,5
Fabrikazio mekanikoa (% 83,1)	10,1	Turismoa (% 70,0)	67,9
Ibilgailuen mantentzea (% 81,8)	4,4	Elikagaien industria (% 68,8)	71,4
Informatika (% 80,9)	9,7	Energia eta ura (% 66,7)	8,3
Osasuna (% 80,0)	79,4	Kimika (% 62,4)	64,3

Iturria: EAEn Lanbide Heziketatik bizimodu aktiboan sartzeari buruzko inkesta. Lanbide



### 3.4. Unibertsitateko ikasketak amaitutako emakumeak

#### Emakumeek unibertsitatea aukeratzen dute, baina presentzia txikia adar teknikoan

Emakumezkoen presentzia oso handia da Euskadiko unibertsitateetan: emakumezkoak dira ikasketak amaitutako hamar lagunetik sei -ratio hori LHkoa baino altuagoa- eta haien ekarpena egonkorra da (% 58), baina ikasketak amaitutako pertsonen kopuruaren joera zertxobait beheranzkoa da; izan ere, 9.563 pertsonakoa izatetik (2012-2013ko batezbestekoa) 8.457 pertsonakoa izatera igaro da (2018ko promozioa). Hala, kopurua 1.106 pertsonatan gutxitu da. Baliteke emaitza hori LHren alternatibarekin lotuta egotea, aldi horretan, ikasketak amaitutako kopurua 1.199 lagunetan handitu baita.

Familia profesionalen arabera, emakumezkoak dira ikasketak amaitu dituzten ikasleen erdia baino gehiago esparru hauetan: Osasuna (% 79,7), Giza Zientziak (% 67,9), Gizarte Zientziak (% 67,1), Ekonomiko-juridikoak (% 56,0) eta Zientzia Esperimentalak (% 53,8). Aldiz, haien proportzioa ikasle guztien heren batekoa baino gutxiagokoa da ikasketak teknikoetan (% 28,2) eta horrek agerian uzten du prestakuntza aukeratzeko garaian dagoen genero mailako joera.

Emaitza sendotu egin da aurreko promozioei dagokienez eta, gainera, ikasketak teknikoetan emakumeen kolektiboaren proportzioa zertxobait gutxitu da. Izan ere, 2012-2013ko promozioen eta 2018ko promozioaren artean, % 31,1etik % 28,2ra arteko aldaketa egon da. Hala, erronka Gipuzkoako nesken/emakumeen artean bokazio zientifiko-teknologikoak bultzatzea da, STEM arloetan haien presentzia areagotzeko.

#### 10. taula Euskadiko unibertsitateetan ikasketak amaitutako pertsonak eta emakumeak

	2012-2013	2014-2016	2017	2018
<b>Unibertsitatea amaitu duten ikasleak</b>				
Ikasleak, guztira	9.563	9.101	8.255	8.457
Emakumeak	5.547	5.188	4.788	4.905
<b>Emakumeen %</b>	<b>58,0</b>	<b>57,0</b>	<b>58,0</b>	<b>58,0</b>
<b>Familia prof.: emakumeen %</b>				
Osasuna	78,5	77,0	76,9	79,7
Giza zientziak	70,2	66,9	66,5	67,9
Sozialak	74,5	72,6	69,0	67,1
Ekonomiko-juridikoak	58,4	55,8	56,5	56,0
Esperimentalak	63,1	60,4	59,9	53,8
<b>Teknikoak</b>	<b>31,1</b>	<b>30,6</b>	<b>27,4</b>	<b>28,2</b>

Iturria: Euskal unibertsitateetatik lan-munduratzeari buruzko azterlana. Lanbide

### Hamar emakumetik bederatzi lanean ari dira ikasketak amaitu eta 3 urtera

Unibertsitateko ikasketak amaitutako ikasleen enplegarritasuneko adierazleek ikasketak amaitu eta hiru urtera gizon eta emakumeen lan-egoera zein den erakusten dute. Horrenbestez, eskuragarri dagoen informazioa (2018ko promozioa) 2021eko abenduako lan-egoerari lotuta dago. Emaitzek honako hau erakusten dute:


- Hamar lagunetik bederatzi lanean eta/edo enpleguaren bilaketa aktiboan sartuta daude emakumezkoen (% 91) eta gizonezkoen (% 92) kasuetan.
- Eta populazio aktibo horri dagokionez, pertsonen % 87k du ordaindutako enpleguren bat (eta emaitza antzekoa da gizon eta emakumeen artean).
- Langabezia-tasa antzekoa da gizon eta emakumeen artean (% 13), baina pandemia aurrekoa baino handiagoa (% 9,9 eta % 9,1; 2014-2016 promozioa).
- Enplegu-tasa handiena osasunean eta ikasketa teknikoetan (% 87) dago eta, hain zuzen ere, horixe da emakumeen presentzia txikieneko esparrua (% 28,2).

### 11. taula Lan-munduratzeari buruzko azterlana. Lanbide

	2012-2013	2014-2016	2017	2018
<b>Ikasketak amaitu dituzten emakumeak</b>				
Jarduera-tasa	92,4	93,4	93,0	91,0
Okupazio-tasa	75,3	84,3	87,0	87,0
Langabezia-tasa	18,6	9,9	13,0	13,0
<b>Ikasketak amaitu dituzten gizonak</b>				
Jarduera-tasa	93,6	94,5	93,0	92,0
Okupazio-tasa	79,6	85,4	87,0	87,0
Langabezia-tasa	15,0	9,1	13,0	13,0

Iturria: Euskal unibertsitateetatik lan-munduratzeari buruzko azterlana. Lanbide

### 7. grafikoa Enplegua-tasa, familia profesionalen arabera (2021eko abendua)



Iturria: Euskal unibertsitateetatik lan-munduratzeari buruzko azterlana. Lanbide

# 4. Emakumea eta bizitza osoko ikaskuntza

## 4.1. Bizitza osoko ikaskuntzaren definizioak

Bizitza osoko ikaskuntzaren kontzeptuak jarduera ugari biltzen ditu, besteak beste, pertsonen egunerokotasunean eta bizitzako arlo guztietan, arlo zibiko, sozial edo profesionalean, ezagutzak, gaitasunak eta kualifikazioak hobetzeko egindakoak. Beraz, bizitza osoko ikaskuntzak bat egiten du pertsonen gaitzea mantentzearen helburuarekin, eta aldi berean, pertsonen bizitzako alderdi guztietara ezagutza eta jakin-mina zabaltzen du. Hori horrela, honako ikaskuntza-tipologia hauek hartu dira aintzat:

- Ikaskuntza formala: hezkuntza- eta prestakuntza-zentroetan egiten da eta aitortutako kualifikazioak eta diplomak lortzera bideratuta dago.
- Ikaskuntza ez-formala: modu antolatuan eta iraunkorrean egiten da, baina ez dago titulu ofizial bat lortzera bideratuta. Hezkuntza-erakundeen baitan nahiz kanpoan egin daiteke (bizitzan moldatzeko tresnak, lanarekin lotutako ikastaroak, kultura orokorra, pintura-eskolak...).

Etengabeko ikaskuntzaren kontzeptuak ikaskuntza formalari eta ez-formalari egiten die erreferentzia, bi adierarekin:

- Bizitza osoko ikaskuntza: azken 12 hilabeteetan egindako ikasketa-jarduerei egiten die erreferentzia.
- Ikaskuntza jarraitua eta/edo ohikoa: azken 4 asteetan egindako ikasketa gisa ulertuta.

## 4.2. Emakumeen parte-hartzea ikaskuntzan

### Zertxobait gutxitu da emakumeek ikaskuntzan duten partaidetza

Gipuzkoako emakume helduek (25-74 urte) ikasten jarraitzen dute. Hala, hamar emakumetik lauk egin ditu bizitzan zeharreko ikaskuntzako jarduerak 2022an. Baina bilakaerak emakumeek ikaskuntzan izandako partaidetzan atzerapen txikia gertatu dela erakusten du; izan ere, 2019-2020 biurtekoan % 40<sup>7</sup> baino handiagoa zen, eta 2021-2022an datu horren azpitik dago. Baliteke emaitza horretan pandemiak eragina izatea, baina emaitza hori 2023an baieztatu beharko da.

Ikaskuntzaren tipologiak alde batzuk erakusten ditu; izan ere, emakumeen partaidetza handitu egin da ikaskuntza formalean (% 11,3tik % 12,5era), eta, aldiz, gutxitu modalitate ez-formalean (% 31,0tik % 29,4ra). Emaitza horretan ikus daitekeenez, adierazlean gertatutako jaitziera orokor arina ikaskuntza ez-formalak (ehuneko -1,6 puntu) izandako beherakadak eragin du, ez baitu ikaskuntza formalean sumatutako partaidetza-igoera konpentsatu (ehuneko +1,2 puntu).

Bestalde, aipatu beharrekoa da bost emakumetik ia batek ikasi duela kontsulta egin aurreko lau asteetan (% 17,5). Horrek aurreko bi urteetako emaitza hobetu eta emakumeek ikaskuntzan etengabeko partaidetza dutela baieztatu du.

### 12. taula Emakumeek eta bizitza osoko ikaskuntza

Baiezkoen %, 25-74 urteko emakumeak

	2019	2020	2021	2022
<b>Etengabeko ikaskuntza (azken 12 hilab.)</b>	<b>41,7</b>	<b>42,4</b>	<b>38,3</b>	<b>37,7</b>
Ikaskuntza jarraitua (azken 4 asteak)	20,8	13,9	16,0	17,5
Ikasketa formala	10,2	9,9	11,3	12,5
Ikasketa ez-formala	36,7	35,2	31,0	29,4

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunekeo Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

### Baina adinaren araberako aldeek bere horretan jarraitzen dute

Honi atxikitako taulan ikus daiteke ikaskuntzako partaidetza 2022an Gipuzkoako emakumeen adina kontuan hartuta. Ikus daitekeenez:

<sup>7</sup> 2020ko emaitzak ez daude pandemiaren eraginaren mende; izan ere, kontsulta urte hartako otsailean egin zen.

- 25-34 urtekoen taldeak du partaidetza-tasa handiena bizitza osoko ikaskuntzan. Hala, azken urtean ikasi duten emakume gazteak erdia baino zertxobait gehiago (% 55,4) dira. Partaidetza hori gutxitu egiten da emakumeen adinarekin; 35-44 urtekoen taldeko % 42,0tik, 65-74 urtekoen % 16,7ra.
- Profil hori etengabeko ikaskuntzakoaren berbera da: 25-34 urtekoen taldekoarena 65-74 urte dituztenen taldekoaren bikoitza da (% 23,1 eta % 10,6).
- Gainera, arrakala hori are handiagoa da ikaskuntza formalaren kasuan; izan ere, 25-34 urte arteko lau emakumetik hiruk ikasi dute (% 29,2) eta 65-74 urtekoen taldeak ez du partaidetzarik (% 0,0).
- Profil bera ikus daiteke ikaskuntza ez-formalaren kasuan eta gehien ikasten dutenen (25-34 urte; % 40) eta gutxien ikasten dutenen (65-74 urte; % 16,7) arteko aldea ehuneko 20 puntu baino gehiagokoa da.

### 13. taula Emakumeak eta bizitza osoko ikaskuntza, adinaren arabera. 2022

Baiezkoen %, 25-74 urteko emakumeak

	25-34	35-44	45-54	55-64	65-74
<b>Etengabeko ikaskuntza (azken 12 hilab.)</b>	<b>55,4</b>	<b>42,0</b>	<b>38,8</b>	<b>34,1</b>	<b>16,7</b>
Ikaskuntza jarraitua (azken 4 asteak)	23,1	21,0	14,1	17,6	10,6
Ikasketa formalak	29,2	15,0	9,4	9,4	0,0
Ikasketa ez-formalak	40,0	32,0	30,6	27,1	16,7

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia


Dena den, 2021eko datuekin alderatuta, 45 urte eta gehiagoko partaidetza handiagoa izan da gazteagoen taldeak izandakoarekin alderatuta. Zehazki,

- handitu egin da ikaskuntzako partaidetza adin-talde hauetan: 45-54 urte, 55-64 urte eta 65-74 urte (ehuneko +3,5, +7,0 puntu eta +4,4 puntu, hurrenez hurren).
- baina gutxitu egin da 25-34 urtekoen eta 35-44 urtekoen taldeetan (ehuneko -9,2 eta -8,0 puntu).

Hala, gutxitu egin da muturreko bi adin-taldeen arteko arrakala (ehuneko 52,3 puntutik 38,7 puntura), baina oraindik ere adierazgarria da. Eraitza ikusita, adinaren arabera ikaskuntzako partaidetza nolabait homogeneousatu egin dela esan daiteke; izan ere, prestakuntza handieneko belaunaldiak adin handieneko taldeetara iritsi dira eta horiek dira ikaskuntzan partaidetza handiena dutenak.

### 8. grafikoa Emakumeen parte-hartzea ikaskuntza iraunkorrean, adinaren arabera

Baiezkoen %, 25-74 urteko emakumeak



Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

### Motibazio profesionala da nagusi lan egiteko adinean dauden emakumeen artean

Azken urtean ikasi duten emakumeen bi herenek (67,9%) adierazi dute prestakuntza egiteko motibazioa profesionala izan dela. Aldiz, ikasteko motibazio pertsonalak aipatu dituztenen ehunekoa txikiagoa da (% 32,1). Emaitza hori sendotu egin da aurreko kontsultetako datuekin alderatuta. Hori dela eta, prestakuntzako partaidetza, batez ere, enplegurako ezagutzak eta gaitasunak hobetzerantz bideratuta egongo litzateke.

Dena den, adina faktore erabakigarria da ikasteko motibazioari dagokionez eta lan-merkatuko partaidetzari lotuta dago. Hala:

- Lan egiteko adinean dauden emakumeen artean (25-64 urte), erdiek baino gehiagok aipatu dute ikasteko motibazio profesionala.
- Aldiz, 65-74 urtekoen taldean, ikasten ari diren emakume guztiak arrazoi pertsonalak aipatu dituzte.

### 14. taula Emakumeek ikasteko dituzten arrazoiak


Ikasten ari diren 25-74 urteko emakumeen banaketa (%)

	2019	2020	2021	2022
<b>Arrazoi profesionalak</b>	<b>64,0</b>	<b>72,5</b>	<b>60,4</b>	<b>67,9</b>
Arrazoi pertsonalak	36,0	27,5	39,6	32,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

### 9. grafikoa Emakumeek ikasteko dituzten arrazoiak, adinaren arabera. 2022

Ikasten aritu diren 25-74 urteko emakumeen banaketa (%)



Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

## 4.3. Ez ikasteko arrazoiak

### Motibazio gabezia da ikasteko oztopo nagusia

Bizitza osoko ikaskuntza-jardueretan parte hartu ez duten emakumeek adierazi dute hauek izan direla ez egin izanaren arrazoiak:

- Bi emakumetik ia batek (% 45,6) aipatu du motibazio gabezia. Aurreko urteetako datuekin alderatuta, gainera, igoera handia izan da (urtetik urterako ehuneko +18,1 puntukoa).
- Heren batek (% 34,0) aipatu du familiako erantzukizunek ikaskuntzako bere partaidetza baldintzatu dutela, baina argudio horren garrantzia gutxitu egin da 2019-2020 biurtekoko datuekin alderatuta (% 40tik gorakoa).
- Hamar emakumetik hiruk adierazi dute ez dutela prestakuntzarik behar (% 28,4) eta bilakaerak agerian utzi du oztopo horrek gero eta garrantzi handiagoa duela (2019-2020an, emakumeen % 10ek baino ez zuten aipatu).
- Sei emakumezkotik batek adierazi du prestakuntza laneko ordutegiarekiko bateraezina dela (% 18,4), baina horren garrantzia beherakorra da.
- Amaitzeko, emakumeen % 10ek baino gutxiagok aipatu ditu adina eta prestakuntzaren kostua ez ikastearekin lotutako argudioetarako (% 8,8 eta % 6,0).

## 15. taula Emakumeek ez ikasteko aipatu dituzten arrazoiak

Baiezkoen %, ikasten aritu ez diren 25-74 urteko emakumeak

	2019	2020	2021	2022
<b>Motibaziorik ez dut</b>	<b>22,1</b>	<b>21,1</b>	<b>27,5</b>	<b>45,6</b>
<b>Familia-erantzukizunek ez didate uzten</b>	<b>42,1</b>	<b>44,8</b>	<b>32,0</b>	<b>34,0</b>
Ez dut behar (ezagutza nahikoa)	8,5	9,5	23,9	28,4
Prestakuntza-ordutegia ez bateragarria lanarekin	35,7	33,6	21,9	18,4
Ez dut adinik, zaharra naizela uste dut	10,2	10,3	20,6	8,8
Garestia da, ezin dut ordaindu	5,5	7,8	13,0	6,0

Hainbat erantzun

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

### Ez ikasteko aipatutako arrazoiak aldatu egiten dira emakumeen adinaren arabera

Honi atxikitako koadroan ikus daitekeenez, ez ikasteko oztopoak nabarmen aldatzen dira emakumeen adinarekin. Hala, kontuan izan behar dira hauek:

- 25-34 urtekoen taldeak prestakuntza lan-ordutegiarekin bateraezina dela (% 51,7) eta familiako erantzukizunak (% 37,9) aipatu ditu. Argudio horiek 35-44 urtekoek aipatutako berberak dira (% 32,8 eta % 31,0, hurrenez hurren). Prestakuntzaren kostua % 10ek baino gutxiagok aipatu dute adin-talde guztietan.

Oro har, "kanpoko argudioak" blokea da nagusi emakume gazteenen artean. Izan ere, 25-34 urteko emakumeen % 32,2k, eta 35-44 urtekoen % 22,4k aipatu dute.

- 45 urtetik aurrera, ez ikasteko beste arrazoi batzuk dira nagusi: motibazio gabezia (% 36,5, % 48,2 eta % 49,1) edo behar adinako ezagutzak dituztelako prestakuntzarik ez behar izatea (% 28,8, % 30,4 eta % 41,8). Emakumeen kolektiboaren adinak gora egin ahala, adierazgarritasuna ere igo egiten da. "Ez dut ikasteko adinik, zaharregia naiz horretarako" argudioa da 65-74 urtekoek gehien aipatu dutena (% 16,4).

Oro har, "arrazoi pertsonalak" blokea da nagusi adin handieneko emakumeen artean. Izan ere, 65-74 urteko emakumeen heren batek baino gehixeagok (% 35,8) aipatu du arrazoi hori.



#### 16. taula Emakumeek ez ikasteko dituzten arrazoiak, adin-taldearen arabera. 2022

Baiezkoen %, ikasten aritu ez diren 25-74 urteko emakumeak

	25-34	35-44	45-54	55-64	65-74
Familia-erantzukizunek ez didate uzten	37,9	31,0	36,5	35,7	30,9
Prestakuntza-ordutegia ez baterag. lanarekin	51,7	32,8	11,5	10,7	0,0
Garestia da, ezin dut ordaindu	6,9	3,4	7,7	5,4	7,3
<b>Batez besteko balioa – kanpoko arrazoiak</b>	<b>32,2</b>	<b>22,4</b>	18,6	17,3	12,7
Motibaziorik ez dut	41,4	50,0	36,5	48,2	49,1
Ez dut behar (ezagutza nahikoa)	13,8	20,7	28,8	30,4	41,8
Ez dut adinik, zaharra naizela uste dut	0,0	3,4	13,5	7,1	16,4
<b>Batez besteko balioa – arrazoi pertsonalak</b>	27,6	24,7	<b>26,3</b>	<b>28,6</b>	<b>35,8</b>

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneke Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

#### 4.4. Emakumeen eta gizonen posizioa, alderatuta

##### Emakumeek partaidetza handiagoa dute ikaskuntza formalean eta modu iraunkorrean

Gipuzkoako emakume helduek bizitza osoko ikaskuntza-jardueretan duten parte-hartzeari dagokionez, gizonezkoen kolektiboarekiko aldeak daude; izan ere:

- Ikaskuntza iraunkorreko (azken 12 hilabeteak) emaitza orokorra zertxobait hobea da gizonezkoen kasuan (% 40,6 vs. % 37,7). Emaitza aurreko kontsulta batzuekiko ezberdina da.
- Baina emakumeek ikaskuntza jarraituan (% 17,5 vs. % 16,0) eta modalitate formalean duten partaidetza (% 12,5 vs. % 8,5) handiagoa da.
- Bestalde, gizonezkoen kolektiboa da nagusi ikaskuntza ez-formaleko partaidetzan (% 34,2 vs. % 29,4) eta, bi kasuetan, horixe da partaidetza-tasa handiena izan duen ikasketaren modalitatea.

#### 17. taula Parte-hartzea bizitza osoko ikaskuntzan, generoaren arabera. 2022

25-74 urteko herritarren %

	Emakumea	Gizona	Aldea
<b>Etengabeko ikaskuntza (azken 12 hilabeteak)</b>	<b>37,7</b>	<b>40,6</b>	<b>-2,9</b>
Ikaskuntza jarraitua (azken 4 hilabeteak)	17,5	16,0	+1,5
Ikasketa formala	12,5	8,5	+4,0
Ikasketa ez-formala	29,4	34,2	-4,8

Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneke Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

### Genero-arrakala, familiako erantzukizunak ikasteko oztopo direlaren argudioan

Ez ikasteko argudioei dagokienez, generoaren arabera aldeei erreparatzen bazaie, aurreko kontsultetan ateratako emaitzak berretsi egin dira:

- Nabarmendu beharrekoa da familiako erantzukizunetan dagoen arrakala; izan ere, oztopo hori aipatu du emakumeen heren batek (% 34,0) eta, aldiz, hori aipatu duten gizonezkoak seitik bat (% 15,1) izan dira. Beste nolabait esanda, genero-arrakala ia ehuneko 20 puntukoa izan da (ehuneko +18,9 puntu).
- Motibazio-gabeziari dagokionez ere handiagoa da emakumeen proportzioa (ehuneko +9,0 puntu), baina bi kolektiboen kasuan, horixe da ikasteko oztopo nagusia (% 45,6 eta % 36,6 gizon eta emakumeentzat, hurrenez hurren).
- Gainerako argudioei dagokienez, gizonezkoek gehiago aipatu dituzte honako hauek (eta, ondorioz, gizonezkoen kolektiboan neurri handiagoan eragiten duten ikasketarako oztopoak izango lirateke): Prestatzeko beharrik ez izatea (% 36,1), prestakuntzaren eta laneko ordutegiaren arteko bateraezintasuna (% 22,7), bere burua ikasteko zaharregia ikustea (% 13,9) eta prestakuntzaren kostua (% 6,3).

Hitz gutxitan esanda, gizonezkoen eta emakumezkoen artean ez ikasteko argudioetan zeuden aldeak sendotu egin dira eta bereziki nabarmendu beharrekoa da familiako erantzukizunekin lotutako genero-arrakala.

### 18. taula Ez ikasteko arrazoiak, generoaren arabera. 2022

*Ikasi ez duen 25-74 urteko herritarren %*

	Emakumea	Gizona	Aldea
Motibaziorik ez dut	<b>45,6</b>	36,6	+9,0
Familia-erantzukizunek ez didate uzten	<b>34,0</b>	15,1	+18,9
Ez dut behar, ezagutza nahikoa	28,4	<b>36,1</b>	-7,7
Prestakuntza-ordutegia ez da bateragarria lanarekin	18,4	<b>22,7</b>	-4,3
Ez dut adinik, zaharra naizela uste dut	8,8	<b>13,9</b>	-5,1
Garestia da, ezin dut ordaindu	6,0	6,3	-0,3

*Iturria: Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia*



<b>Izenburua:</b>	<p>Emakumeen talentua: Gipuzkoako emakume helduen prestakuntza</p> <p>90. dokumentua, 2023ko martxo</p>
<b>Sustapena eta finantzaketa:</b>	<p>Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia</p> <div style="display: flex; justify-content: space-around; align-items: center;"> <div data-bbox="582 1541 726 1637"> <p><b>Gipuzkoako Foru Aldundia</b> Ekonomia Sustapeneko, Turismo eta Landa Ingurune Departamentua</p> </div> <div data-bbox="730 1541 817 1648">  </div> <div data-bbox="821 1547 973 1637"> <p>Diputación Foral de Gipuzkoa Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural</p> </div> </div>
<b>Egilea:</b>	<p>IKEI, research &amp; consultancy S.A.</p>
<b>Informazio-iturriak:</b>	<p>Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Departamentua (GFA), Eustat, Lanbide eta Hezkuntza eta LHko Ministerioa</p>

